



Garbinguru

**OSAKIDETZA
BILBO ESKUALDEA
COMARCA BILBAO
-.BiE.-**



**INGURUMENARI
BURUZKO
ADIERAZPENA
2009ko urtarrila-abendua**



AURKIBIDEA

1 AURKEZPENA

- 1.1 Sarrera**
- 1.2 Ingurumena kudeatzeko Sistemaren (IKS) irispena**

2 INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAREN DESKRIBAPENA

- 2.1 Ingurumenerako Politika**
- 2.2 Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren aurkezpena**

3 BiE- BILBO ESKUALDEAREN INGURUMENAREN GAINEKO JOKABIDEA

- 3.1 Ingurumenari lotutako alderdiak**
- 3.2 Ingurumenari lotutako alderdien identifikazioa**
- 3.3 Ebaluazio-irizpideak**
- 3.4 Ingurumen-alderdi garrantzitsuak**

4 XEDEAK ETA HELBURUAK. INGURUMENAREN KUDEAKETARAKO PROGRAMAK

5 INGURUMEN-JOKABIDEA

- 5.1 Oinarrizko adierazleak eta beste adierazle batzuk**
- 5.2 Arau-xedapenen arabera ingurumen-jokabideak**
 - 5.2.1 Ingurumenaren eremuan aplikagarri diren legezko baldintzak**
 - 5.2.2 Legezko baldintzak eta ingurumen izaerako beste baldintza batzuk betetzea.**

6 INGURUMENARI LOTUTAKO BESTELAKO INFORMAZIO INTERESGARRIA

- 6.1 Ingurumenarekiko jokabidea erakundeko beste eremu batzuetan**
- 6.2 Herritarrari komunikazioa eta informazioa**
- 6.3 Hornitzaileek ingurumenarekiko daukaten jokabidea**
- 6.4 Ingurumen-kudeaketarako inbertsioak**
- 6.5 Ingurumenaren gaineko gertaerak**
- 6.6 2010eko erronkak**

7 EGIAZTATZEA ETA BALIDAZIOA

ERANSKINAK BiE osatzen duten zentroetako datuak

1 AURKEZPENA

1.1 SARRERA

Adierazpen honen xedea da **herritarrei eta interesa daukaten beste parte batzuei** Bilbo Eskualdeko- Comarca Bilbao (**BiE**) ingurumen-alderdiei buruzko informazioa ematea, erakundearen jardueraren ondoriozko eraginei buruzkoa nahiz **ingurumen-eraginak gutxitzeko eta kutsadura prebenitzeko** egiten den ingurumen-kudeaketari buruzkoa ere. Aurkezpen honek Osakidetza-ren Bilbo Eskualdeko (**BiE**) osasun zerbitzu publikoen erakundeak, **2009an** bereziki, buruturiko jarduerak eta konpromisoak dokumentu publiko batean sistematizatzea dakar berekin (851 CNAE kodea). Horri esker, gure ibilbidea erakutsi eta eginiko jarduerari buruzko ikuspegi orokorragoa eman dezakegu.


Eranskinetan **BiE** osatzen duten zentroetako bakoitzak daukan ingurumenarekiko jokabidea deskribatzen da.

Hauexek dira harremanetarako datuak, non **BiE**ren ingurumenari buruzko adierazpena jendaurrean jartzen den:

Kale Nagusia 62, 2. solairua 48011 - Bilbo
Telefona: 94 400 73 00
Faxa: 94 400 73 77
Helbide elektronikoa: andres.villarpizarro@osakidetza.net
Harremanetarako pertsona: Andrés Villar Pizarro

1.2 INGURUMEN-KUDEAKETAREN SISTEMAREN IRISPENA

BiEren Lehen Mailako Arretako Unitate guztietan (aurrerantzean LMAUak), ematen den ingurumen-kudeaketa da sistema honen irispina, **Lehen Mailako Arretako** (administrazio kudeaketa eta osasun laguntza) zerbitzuak emateari zein Eskualdeko Zuzendaritzaren jardunari dagokionez **soilik**.



Kokalekuak honakoak dira:

LEHEN MAILAKO ARRETAKEO UNITATEAK (LMAUak)	ERANSKINAK agiriak zentroetako datuak :	ZENTROAK	M2	Helbidea	OTI kopuruak: ***			***Hitzordu kopurua erabiltzaileko
					31.12..07	31.12.08	31.12.09	31.12.09
1.- BASURTU-ALTAMIRA	01	BASURTU OZ	1.500	Iparraldeko Lorategiak, 1 - 48013	17.486	18.344	18.657	151.039
	02	ALTAMIRA OZ	320	Altamira,11 - 48013	4.565	3.840	3.741	38.257
2.-BEGOÑA	03	BEGOÑA OZ	1.100	Begoñako Andra Mari kalea, 32 - 48006	13.647	13.595	13.422	131.943
3.-BOLUETA-SAGARMINAGA	04	SAGARMINAGA OZ	410	Sagarminaga, 56 - 48004	14.064	14.085	14.157	128.496
4.-ALDE ZAHARRA	05	ALDE ZAHARRA OZ	950	Erronda kalea, 6 - 48006	12.039	12.384	12.963	105.258
5.-DEUSTUA - ARANGOITI	06	DEUSTUA OZ	2.375	Power Luis, 18 - 48014	23.372	23.499	23.728	223.390
	07	ARANGOITI OZ	400	Berribidea, 50 - 48014	5.059	5.103	5.107	45.388
6.- KARMELO	08	KARMELO OZ	450	Haroko plaza, 2 - 48004	15.446	15.464	15.421	144.207
7.-ETXANIZ SUHILTZAILEA	09	ETXANIZ OZ	2.000	Etxaniz suhiltzailearen plaza, 1 - 48010	38.975	39.648	39.619	290.676
8.-GAZTELEKU	10	GAZTELEKU OZ	1.200	Vianako Printzearen kalea, 5 - 48007	24.706	23.380	23.606	201.239
9.-INDAUTXU	11	INDAUTXU OZ	2.100	Areitza dk. 12, -48011	22.046	22.155	22.342	164.197
10.-J. SAENZ DE BURUAGA	12	J.S. BURUAGA OZ	2.050	Henao, 7-9 - 48009	15.453	15.704	16.238	101.160
11.-MESEDEETAKOA	13	MESEDEETAKO OZ	350	Iruarizaga Luis, 1 - 48003	9.681	10.221	11.116	90.012
12.-ABUSU	14	ABUSUKO OZ	600	Ibaialde z/g - 48003	10.902	11.069	11.136	109.463
13.-OTXARKOAGA	15	OTXARKOAGA OZ	1.200	Zizeruene, 1 - 48004	13.133	13.166	13.203	159.515
14.-ERREKALDE	16	ERREKALDE OZ	2.100	Larraskitubidea, 2 - 48002	28.934	29.319	29.899	287.047
15.-SAN ADRIAN	17	SAN ADRIAN OZ	512	Garay Juan de, 51-53 - 48003	14.929	15.731	16.647	150.256
16.-SAN INAZIO	18	SAN INAZIO OZ	1.800	Larrakotorrea, 9 - 48015	27.545	27.507	27.528	254.605
17.-SANTUTXU- SOLOKOETXE	19	SANTUTXU OZ	1.400	Sorkunde, 3 - 48006	24.750	24.915	25.246	240.402
18.-TXURDINAGA	20	TXURDINAGA OZ	1.900	Garat Txomin, 16 - 48004	16.852	16.785	16.836	152.892
9.-ZORROTZA - ALONSOTEGI	21	ZORROTZA OZ	880	Zorrotza-Kastrexana errep. 20-22 atzealdea 48013	12.982	13.031	13.115	134.703
	22	ALONSOTEGI OZ	530	Errotetabidea, z/g - 48810	3.140	3.172	3.182	32.925
20.-ZURBARAN	23	ZURBARAN OZ	550	Zumalacarregui, 99 - 48007	11.095	12.196	12.468	112.165
GUZTIRA		23	28.177		380.801	384.313	389.377	3.477.249
ESKUALDEKO ZUZENDARITZA	24	+1	1.500	Kale Nagusia, 62 - 48011	****Eskualdeko administraziooko lanpostu-zerrenda 50			

* Anbulatorioetan kokatutako osasun-zentroak.

** Arreta espezializatuko zerbitzua daukaten osasun zentroak.

*** Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailetik eratorritako datuak.

OHARRA: Udal-zentsuko biztanleen gaineko, OTIen edo osasun txartel indibidualen kopuru handiena, beste herri batzuetan erroldatuta egon arren, medikua gure Eskualdean mantentzen duten pertsonen dagokiena da.

Erabiltzaileko hitzordu kopurua + eskualdeko lanpostu-zerrenda: Adierazleak kalkulatzeko baliatutako datua

2. INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAREN DESKRIBAPENA:



2.1. INGURUMENERAKO POLITIKA

BiEko zuzendari gerenteak eta ingurumeneko arduradunak politika hori zuzentzen eta zehazten dute erakunde osoan zehar ezar dadin, eta **Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren (IKS) helburuak** ezartzeko erreferentzia dira.



Helburu horiek **BiE**ren ildo estrategikoetan finkatzen dira, malguak dira, urtero berrikusten dira eta ingurunearen eskakizunetara irekita daude. Gainera, ingurumenaren arloko unean uneko lehentasunak ezartzen dituzte.

Zuzendaritzak balekotzat jo du 2008ko Ingurumenari buruzko adierazpenean definitutako ingurumenerako politika. Bertan zera jaso da: ingurumen-kudeaketaren arloan burututako ekintza guztien azken helburuak eta behinenak **BiE** – Bilbo Eskualdeko kutsadura prebenitzea eta ingurumen-jokabidearen etengabeko hobekuntza direla, horretarako aplikagarri den ingurumen-araubide guztiari men eginez.

Ingurumenari buruzko adierazpen honen informazio-hedapena bermatzeko, kartelak jarriko dira zentro guztietan, pertsonalaren, herritarren eta kontraten eskura.

2.2.- INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAREN AURKEZPENA:

BiE **IKS** ezarri du UNE-EN ISO 14001:2004 arauaren eta Europako 1221/2009 (EMAS) araubideko baldintzetan oinarrituta. Bertan xedatu dira **Ingurumena Kudeatzeko Eskuliburua** eta ingurumen-alderdiak, **Etengabeko Hobekuntzaren** zikloan, behar bezala identifikatzen eta kudeatzen direla bermatzeko beharrezko prozedura eta jarraibide teknikoak.

3. **BiE** – BILBO ESKUALDEKO INGURUMENAREN GAI NEKO JOKABIDEA

Ingurumenari buruzko adierazpen honen xedea honakoa da: interesa daukaten parte guztiei, Bilbo Eskualdeak ingurumenarekin daukan harremanaren berri ematea.

Ingurumenarekiko gure jokabidea era honetan egituratzen da:

- **INGURUMENARI** lotutako **ALDERDIEN** identifikazioa: Ingurumenarekiko elkarreragina izan dezaketen **BiE**ko jardueraren edo zerbitzuen elementuak. **Ingurumen-alderdi esanguratsutzat** joz, ingurumen eragin garrantzitsua daukana edo izan dezakeena.
- Ingurumenarekiko jokabidearen analisi ebolutiboa egitea ahalbidetuko duen **informazio kuantitatiboa**.

3.1. INGURUMENARI LOTUTAKO ALDERDIAK

BiE – Bilbo Eskualdea bere jarduera eta zerbitzuetatik eratorritako ingurumen-eraginak identifikatzeko beharrianaz jabetzen da, bere egungo egoera ezeze, iraganekoa eta etorkizunekoa ere aintzat hartuz. Horregatik prozeduraren arabeko alderdion identifikazioa egin du: “IKS-EP-12 Ingurumen-Alderdien identifikazioa”, garapena kontrolatzeko eta bere ingurumenerako politikaren egokitzapena egiaztatzeko.

Honakoak izan daitezke:

- o **Zuzenekoak.**- Jardueraren garapenaren ondorioz eratortzen direnak dira eta horien kudeaketaren gaineko kontrola dago. Honelaxe identifika daitezke:
 - o **Ohiko egoeran.**- **BiE**ko ohiko jarduera.
 - o **Ezohiko egoera.**- Jarduera edo zeregin puntualak.
 - o **Larrialdiak.**- kasu bakoitzean eman daitezkeen egoera posibleak eta alderdi potentzialak aurreikusi beharko liratekeela.
- o **Zeharkakoak.**- Jardueraren garapenaren ondorioz eratortzen direnak dira, baina **BiE** ez dauka horien gaineko kontrolik.

3.2. INGURUMENARI LOTUTAKO ALDERDIEN IDENTIFIKAZIOA:

IKSaren ardura daukan pertsonak zuzeneko eta zeharkako ingurumen-alderdiak identifikatzen ditu. Identifikazio hori LMAUetan ematen diren jardueren eta zerbitzuen analisisan oinarritzen da.

Erakundearen jarduerak abiapuntutzat hartuta, ingurumen-alderdiak identifikatzeko, erakundearen funtzionamenduaren ohiko baldintzak nahiz ohi kanpokoak, baita balizko larrialdiak ere, hartu dira kontuan. Zentzu horretan, **BiE**ren zerbitzu-zorroa eta prozesuak hartu dira aintzat. Hauexek dira erakundean identifikatutako ingurumen-alderdiak:

Zuzeneko alderdiak ohiko egoeretan:

ALDERDI-MOTA		INGURUMEN-ALDERDIA
Kontsumoak	A. administratiboa	Papera
		Tonerra
		Pilak eta bateriak
		Inprimagailuko kartutxoak
	A. sanitarioak	Medikamentuak
		Aposituak
		Tirak
		Orratzak, xiringak eta hodiak
		Bendak eta gazak
		Beste material sanitario batzuk
		Bestelako materiala
	S. arriskutsuak	Substantzia arriskutsuak (Instrunet)
	Sareko ura	Sareko ura
	Energia	Argindarra
		Galdarako gasa
		Galdaretako gasolioa
		Automoziozko gasolioa

ALDERDI-MOTA		INGURUMEN-ALDERDIA
Hondakinak	Arriskutsuak	RAEEak (inprimagailuak, ordenagailuak, etab.)
		Pilak eta bateriak
		Ebakitzaileak eta zorrotzak
		Lanpara fluoreszenteak
		Zitostatikoak
		Iraungitako medikamentuak
	Ez arriskutsuak	Garbiketako ontzi arriskutsuak
		Erradiografiak
		Tinta eta toner kartutxoak
		Papera eta kartoia
		Hondakin higienikoak (komunak)
		Bereizi gabeko hiri-hondakinak
Isurketak		Ur sanitarioak
Zarata		Bulegoetako zarata
Igorpenak	Argindarraren igorpenak	
	Galdarako igorpenak	
	Automozioiko igorpenak	

(1) inprimagailu, fotokopiagailu, drumetako tonerra barne hartzen du

Zuzeneko alderdiak ezohiko egoeretan:

- o Eraikuntza eta eraispeneko hondakinak
- o Bolumen handiko hondakinak (altzariak...)

Larrialdi egoeretan zuzeneko alderdiak

INGURUMEN-ALDERDIA	LARRIALDIAK
Igorpenak atmosferara	Leherketa
Hondakin arriskutsuak	Leherketa
Hondakin inerteak	Leherketa
Hondakin inerteak	Sutea
Hondakin arriskutsuak	Sutea
Sua itzaltzetik eratorritako isurketak	Sutea
Igorpenak atmosferara	Sutea
Hondakin ez arriskutsuak	Uholdea
Uholdetik eratorritako isurketak	Uholdea
Legionela kutsadura	Legionelosisia
Igorpenak atmosferara	Gas hozgarriaren ihesa
Hondakin arriskutsuak	Substantziak, hondakin arriskutsuak edo erregaiak isurtzea
Isurketak	Substantziak, hondakin arriskutsuak edo erregaiak isurtzea

Zeharkako alderdiak:

- o Hornitzaileek ingurumenaren aldetik daukaten jokabidea (mantentzea, garbiketa,...)
- o Hornitzaileek ingurumenarekiko daukaten jokabidea – kanpoko analisisien laborategia
- o Lehen Mailako Arretakoa ez den pertsonalak ingurumenarekiko daukan jokabidea.
- o Erabiltzaileek ingurumenarekiko daukaten jokabidea

3.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

LMAUetako kudeaketaren ingurumen-alderdiak behin identifikatu ondoren, sistemaren arduradunak ingurumen-alderdiak ebaluatzen ditu (**zuzenekoak zein zeharkakoak**) Ingurumen-Alderdien Ebaluazio-Taulen arabera, IKS-KP-12 prozedurari erantsitako agiria, ingurumenaren gain, horietatik zeinek daukan eragin garrantzitsua zehaztu eta berorren kontrola hobetzeko.

Ohiko eta ezohiko baldintzetako zuzeneko alderdien nahiz zeharkakoen ebaluazioa eginiko jardueretan bildutako informazioan dago oinarrituta, eta bi irizpide hartzen ditu kontuan (edo irizpide bakarra zenbait kasutan):

- a) Alderdiaren **magnitudea** (alderdia zenbatzea: Kopurua, instalazioen funtzionamendu orduak, etab.).
- b) Alderdiaren **izaera** (legezko mugetara hurbiltzea, ingurumen-eragina,...).

Ebaluazio-irizpideetarako, a) (Magnitudea) eta b) (Izaera), balorazio-escala bat ezarri da (gutxienez 1, eta gehienez 3).

Faktore orokorraren balioa lortzeko, magnitudea bider izaera eragiketa egin dugu. Ebaluazioaren balioa, aurreko atalean zehaztutako eragiketaren arabera eginga, gehieneko kalifikazioaren %40 (hots, 4 puntu edo gehiago) edo handiagoa bada, alderdia GARRANTZITSUtzat hartuko da eta lehenetsi egingo da hobekuntzarako helburuak esleitzerakoan.

Larrialdietako alderdien kasuan, faktore orokorraren balioa lortzeko irizpide hauek izango dira kontuan:

- o Larrialdia gertatzeko **probabilitatea** (larrialdia zenbat aldiz gertatu den abiapuntu hartuta).
- o Larrialdi bakoitzaren balizko eraginaren **larritasuna**.

Magnitudearen eta Izaeraren kasuan bezala, balorazio-escala bakarra ezarri da (gutxienez 1, gehienez 3)

Faktore orokorraren balioa lortzeko, probabilitatea bider larritasuna eragiketa egingo dugu; ebaluazioaren balioa gehienezko kalifikazioaren %40 (hots, 4 puntu edo gehiago) edo handiagoa bada, alderdia GARRANTZITSUtzat hartuko da eta lehenetsi egingo da hobekuntzarako helburuak esleitzerakoan.

FAKTORE OROKORRA (M x N) EDO (P x G)	GARRANTZIA-MAILA
FG < 4	Ez da garrantzitsua
FG ≥ 4	Garrantzitsua da

Aurreko atalean zehaztutako irizpideen argitan, alderdi garrantzitsuen kopurua handia balitz, ingurumenaren eragina gutxitzeko ekintzak bideratu orduan, IKS-KP-12 prozedurako I. eranskinean, EBALUAZIO-TAULAn, deskribatutako irizpide gehigarriak hartuko lirateke aintzat. **B** Cren aurretik lehenetsiz eta **A** Beren aurretik.

Irizpide gehigarriak:

Erabaki-irizpideak	A	B	C
Interesdun alderdiak	Justifikatutako erreklamazioak edo kritikak	Justifikatu gabeko erreklamazioak edo iradokizunak	Kritika susmoa
Egite-irizpideak	A	B	C
Iritzi teknologikoak	Teknologia egokia egon badago	Dagoen teknologia ez dago eskuragarri	Ez dago teknologia egokirik aldaketarako
Aukera ekonomikoak	Inbertsio baxua eta itzulkin ona	Erdi-mailako inbertsioa edo itzulkin egokia	Goi-mailako inbertsioa edo itzulkin baxua

Aurretiaz deskribatutako irizpideak aplikatu izanaren azken emaitzak **BiE** – Bilbo Eskualdeari ahalbidetzen dio, batetik, bere jarduerak ingurumenari (ingurumen-alderdien identifikazioa) nola eragiten dion eta, bestetik, zein mailatan (ingurumen-alderdi garrantzitsuak eta ez garrantzitsuak) eragiten dion ezagutzea, informazio hori baliatuz, ingurumen-programak ezartzeko (ingurumenaren gaineko helburuak eta xedeak).

3.4. INGURUMEN-ALDERDI GARRANTZITSUAK

Ondoko taulan 2009an identifikatutako ingurumen-alderdi garrantzitsuak azaltzen dira, 2008ko datuekin, beti ere aurreko atalean azaldutako ebaluazioaren metodologiarekin eta horiekin lotutako eraginekin bat etorritik.

Zentroei dagokienez: 2008ko uztailan, egiaztapen prozesuaren emaitzaren ondorioz, ingurumen-alderdiak zentroz zentro identifikatzea egokitzat jo zen. Identifikazio horren emaitzak Ingurumenari buruzko Adierazpenaren eranskinetako bakoitzaren 2.3. atalean jaso da.

BiE-REN ALDERDI GARRANTZITSUAK 2009 (2008ko datuak)		HORRI LOTUTAKO HELBURUA
DESKRIBAPENA	ERAGINA	
Pilen eta baterian kontsumoa	Baliabide naturalak murriztea. Produktu horiek fabrikatzeko prozesuetako hondakinak, igorpenak eta hondakin-uren isurketak murriztea lortu da.	Pilen kontsumoa %1 murriztea Zentroak: Zorrotza, Errekalde, Alonsotegi, Altamira, Etxaniz suhiltzailea, Deustua, Begoña, Indautxu, Otxarkoaga, San Adrian, Zurbaran
Galdaretako gasolioaren kontsumoa	Baliabide naturalen murrizketa. Igorpenak atmosferara.	BiE n berogailuetako gasolioaren kontsumoa %2 murriztea. Zentroak: Etxaniz suhiltzailea
RAEEak (inprimagailuak, ordenagailuak, etab.)	Paisaiaren kalitatea gutxitzea hondakinen pilaketaren ondorioz, berorren kudeaketan energia-kontsumoa. Medioan, substantzia arriskutsu aktiboak sartzea.	Hondakinen bereizketa hobetzea ("zabor orokor" modura bildutako hondakinen kantitatea %1 murriztea) -Zentroak: guztiak
Lanpara hondakinak		
Garbiketako ontzi arriskutsuak		-

Ingurumen-alderdi garrantzitsu zenbaitetarako ez dira hobekuntza-helburuak ezarri, epe esanguratsu bateko daturik ez izateagatik, datuon bilketa selektiboa ez baita egiten sistematikoki, eta horrek ez du ahalbidetzen alderdi horiek garrantzitsuak direnents ziurtatzea, horixe da hain zuzen, garbiketako ontzi arriskutsuen eta lanparen kasua.

Beren izaerak edota erakundearen baliabide murrizteak eraginda, Ekintza Planari lotuta ez dauden ingurumen-alderdien kasuan, Operazio-Kontrolaren bitartez eragiten zaie eta **BiE**ko ingurumen-alderdi guztietarako ezarritako jarraipena egiten zaie.

Hobekuntzarako helburuak jartzerakoan, une honetan Eskualde mailan garrantzitsutzat jo ez diren ingurumen-alderdi batzuk aintzat hartu dira, gerora hala izan daitezkeelakoan edota dagoeneko garrantzitsuak direlako **BiE** osatzen duten zentroetakoren batean eta, gainera, iraunkortasunean aurrera egiteko interesgarri jotzen direlako.

4. XEDEAK ETA HELBURUAK. INGURUMEN KUDEAKETARAKO PROGRAMAK (EKINTZA-PLANAK)

BiE – Bilbo Eskualdean 24 zentro daude Bilbo (23) eta Alonsotegi (1) udalerrietan sakabanatuta. Zentroen artean desberdintasunak eta berezitasunak egon daitezkeen arren, hasieran eskualde mailako helburuak, xedeak eta ekintzak proposatu dira gehienbat, dena den horrek ez du kentzen ingurumen-alderdien identifikazioa eta alderdion ebaluazioa zentroz zentro egitea. Jakin badakigu ingurumen kudeaketa epe erdi/luzerako proiektua dena.

2009an, prozesua etengabe hobetzeko eta urte hasieran planteatutako helburuak erdiesteko aurreikusitako ekintzak abiarazi dira eta ekintza-planen emaitzak eta itxiera aztertu dira.

Jarraian, 2009rako planteaturiko ingurumenaren hobekuntzarako helburu, xede eta ekintzak betetzeari buruzko ebaluazioaren emaitzak erakusten dira.

* Adierazleentzako erabiltzaileko hitzordu kopurua + 4. orrialdeko taularen arabera eskualdeko administrazioko lanpostu-zerrenda

1. INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK / EKINTZAK	EGOERA Lortuta BAI / EZ	
	Definizioa	2008	2009		Xedea	Helburua
Pertsonalaren jokabideak eragindako ingurumen-gertaerak %10 murriztea Zentroak: guztiak	Gertaera kopurua	34 gertaera	38 gertaera	Ingurumenaren gaineko kudeaketaren adierazleen analisia eraginei lotuta	BAI	EZ
				Ingurumenarekiko ekinean lortutako emaitzen (hobekuntzen) hedapena	BAI	
				Ingurumenarekin zerikusia daukaten ezagupenak, iritziak elkartrukatzeko guneak eta bideak eratzea (Ezagutzaren Kudeaketarako tresna)	BAI	
				Ingurumenaren gaineko galdetegia prestatzea	BAI	
				Ingurumenaren gaineko galdetegia LMAUko langileei ematea	BAI	
				Galdetegia betetzea	BAI	
				Betetako galdetegiak aztertzea	BAI	
				Ingurumenarekiko ekinean nahiz IKSren ezagutza (galdetegiak) lortutako emaitzen (hobekuntzak) hedapena	BAI	

Helburuaren betetze-maila: Lortzea espero zen adierazlearen balioa 30,6koa da. Lortutako adierazlearen balioa, berriz, 38koa. Horrek gertaeren %11,76ko igoera dakar berekin. Zentroetako langilearen jokabidearekin lotuta erregistratutako gertaeren kopuruaren igoerak ez dakar berekin ingurumenaren gaineko kudeaketan okerrera egitea baizik eta sentsibilizazio handiagoa gertaera txikiak erregistratzeko orduan; horrez gain, zentroetan egin diren edukiontzien isurketen simulazioak ere ingurumen-gertaeratzat hartu dira. Hortaz, emaitza gorabehera, langileen sentsibilizazioa hazi egin da, ingurumenaren gaineko jardura hobetuz.

Xede/ekintzen betetze-maila: Eskualdea osatzen duten zentro guztietan burutu dira planifikatutako ekintzen %100. 2009ko lehenengo lauhilekoan Ingurumenari lotutako galdetegia prestatu zen. Helburua, ingurumenaren kudeaketari lotutako alderdiei buruz, profesionalen iritzia eta jokabidea ezagutzea zen, ingurumen-gertaerak

murritzeko asmoz. Osasun zentroetako langileei maiatzean banatu zitzairen galdetegia eta ekainean jaso zen. Galdetegietako datuen azterketaren emaitza langileei jakinarazi zitzairen zentroetako ohar-tauletan eta Eskualdeko intranetean jarriz.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Ez da posible izan.

2. INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK/EKINTZAK	EGOERA Lortuta BAI / EZ	
	Definizioa	2008	Helburua		Xedea	Helburua
Lehen Mailako Arretakoa ez den pertsonalaren jokabideak eragindako ingurumen-gertaerak murriztea Zentroak: Santutxu, Etxaniz suhiltzailea, Indautxu, Errekalde, Deustua, Begoña	Gertaera kopurua			Ingurumenari lotutako galdetegia prestatzea	BAI	EZ
				LMAUkoa ez den pertsonalari ingurumenaren gaineko galdetegia ematea	BAI	
		3 gertaera	13 gertaera	Galdetegia betetzea	BAI	
				Betetako galdetegiaren azterketa	BAI	
				Ingurumenarekiko ekinean nahiz IKSren ezagutzan (galdetegiak) lortutako emaitzen (hobekuntzak) hedapena	BAI	

Helburuaren betetze-maila: Lortzea espero zen adierazlearen balioa 2,7koa da. Lortutako adierazlearen balioa, berriz, 13koa. Horrek gertaeren %433ko igoera dakar berekin. Zentroetako langilariaren jokabidearekin lotuta erregistratutako gertaeren kopuruaren igoerak ez dakar ingurumenaren gaineko kudeaketan okerrera egitea baizik eta sensibilizazio handiagoa gertaera txikiak erregistratzeko orduan. 2008an erregistratutako gertaeretatik 3rak arreta espezializatuaren (gure zentroetako eraikina partekatzen baitute) jokabideari lotzen zitzaizkion, hondakin sanitarioen kudeaketari dagokionean. 2009an, aldiz, ez da arreta espezializatuko langilariaren aldetik datorren jokabidezko gertaerarik erregistratu, erregistratutako gertaerak zentrokoa ez zen pertsonalari dagozkio, esaterako, auzo elkartek, udalak, etab.

Xede/ekintzen betetze-maila: Eskualdea osatzen duten zentro guztietan burutu dira planifikatutako ekintzen %100. LMAUetako langilariarekin egin zen modu berean, ingurumenari lotutako galdetegia lehen mailako arretatik kanpokoa den pertsonalari ere banatu zitzaion, hau da, partekatutako zentroetan, Arreta Espezializatuan, garbiketan, eta abarretan, lan egiten duten gainontzeko langileei.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Ez da posible izan.

3.A. INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK/EKINTZAK	EGOERA Lortuta BAI/EZ	
	Definizioa:	2008	2009		Xedea	Helburua
BiEn berogailuetako gasaren kontsumoa %2 murriztea. Zentroak: Santutxu, Zorrotza, Altamira, Arangoiti, Alde Zaharra, Deustua, Gazteleku, Abusu, San Inazio, Txurdinaga	Berogailu-kontsumoa Kwh-tan/erabiltzaileko hitzordu kopurua			Berogailu zirkuituak konpontzea eta aztertzea	BAI	BAI
				Gasaren kontsumoa erregulatzea, ordutegia zentro bakoitzaren beharrianetara egokituz.	BAI	
		0,8211 kwh/erabiltzaileko hitzordu kopurua	0,76289 kwh/erabiltzaileko hitzordu kopurua	Ur beroaren metatze-kontsumoa jaistea	BAI	
				Ur beroaren kontsumorako eguzki-indarra sartzeko azterketa	EZ	

Helburuaren betetze-maila: Erdiestea espero den adierazlearen balioa 0,8046 kwh/ erabiltzaileko hitzordu kopurua da. Lortutako adierazlearen balioa 0,76289 kwh/erabiltzaileko hitzordu kopurua; horrek kontsumoaren %7,09ko murrizketa dakar.

Xede/ekintzen betetze-maila: Zentroetan berogailuen zirkuituak konpondu eta aztertu egin dira, gainera gasaren kontsumoa erregulatu egin da zentro bakoitzaren beharrianetara egokituz. Komun publikoetan ur beroaren ixteko giltzak itxi egin dira.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Helburuaren bitartez, gasa sortzeko beharrezkoak diren baliabide naturalak murriztea lortu da.

3.B. INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK/ EKINTZAK	EGOERA Lortuta BAI/EZ	
	Definizioa	2008	2009		Xedea	Helburua
Berogailuetako gasolioaren kontsumoa %2 murriztea Zentroak: Etxaniz suhiltzailea	Berogailu-gasolioaren kontsumoa kwh-tan/erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioako lanpostu-zerrenda			Berogailu zirkuituak konpontzea eta aztertzea	BAI	EZ
				Gasolioaren kontsumoa erregulatzea, berogailu-ordutegia zentro bakoitzaren beharrianetara egokituz.	BAI	
		0,10314 kwh/erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioako lanpostu-zerrenda	0,12132 kwh/erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioako lanpostu-zerrenda	Ur beroaren metatze-kontsumoa jaistea	BAI	
				Ur beroaren kontsumorako eguzki-indarra sartzeko azterketa	EZ	

Helburuaren betetze-maila: Erdiestea espero den adierazlearen balioa honakoa da: 0,10108 kwh/ erabiltzaileko hitzordu kopurua + Eskualdeko administrazioko lanpostu-zerrenda. Erdiestea espero den adierazlearen balioa, aldiz, honakoa da: 0,12132 kwh/ erabiltzaileko hitzordu kopurua + Eskualdeko administrazioko lanpostu-zerrenda, horrek %17,62ko igoera dakar.

Xede /ekintzen betetze-maila: Zentroetan berogailuen zirkuituak konpondu eta aztertu egin dira, gainera gasaren kontsumoa erregulatu egin da zentro bakoitzaren beharrianetara egokituz. Komun publikoetan ur beroaren ixteko giltzak itxi egin dira.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Ez da posible izan.

4. INGURUMEN HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK / EKINTZAK	EGOERA Lortuta BAI / EZ	
	Definizioa	2008	2009		Xedea	Helburua
Bi En pilen kontsumoa %1 murriztea Zentroak: Zorrotza, Errekalde, Alonsotegi, Altamira, Etxaniz suhiltzailea, Deustua, Begoña, Indautxu, Otxarkoaga, San Adrian, Zurbaran	Pila kontsumoa. Kg-tan/ erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazio ko lanpostu-zerrenda	0,000118 kg/ erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioko lanpostu-zerrenda	0,000124 kg/ erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioko lanpostu-zerrenda	Bateria kargagailuen bideragarritasun-azterketa.	BAI	EZ
				Pilak bateria kargagarriekin ordeztzea.	EZ	
				Zentroak bateria kargagarriekin hornitzea.	EZ	

Helburuaren betetze-maila: Erdiestea espero den adierazlearen balioa 0,000116 kg/ erabiltzaileko hitzordu kopurua. Lortutako adierazlearen balioa 0,000124 kg / erabiltzaileko hitzordu kopurua; horrek kontsumoaren %5,07 igoera dakar.

Xede /ekintzen betetze-maila: Bateria kargagarrien bideragarritasun azterketa egin da, baina pilak ezin izan dira ordeztu pila kargagarriekin Eskualdeko zentro guztietan, profesional batzuei proba diagnostikoetarako pila kargagarriak baliatzeak mesfidantza eragiten baitie.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Ez da posible izan.

5. INGURUMEN HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK / EKINTZAK	EGOERA Lortuta BAI / EZ	
	Definizioa:	2008	2009		Xedea	Helburua
Lehen Mailako Arretako erabiltzaileen jokabideak eragindako ingurumen-gertaerak %10 murriztea Zentroak: guztiak	Gertaera kopurua			Ingurumenaren kudeaketarekiko herritarren kontzientzia sustatzea, horretarako gaiarekin zerikusia daukan informazio atzipena eta zabalpena bermatuz (web-orria, erabiltzaileentzako begirada batez)	BAI	EZ
				Ingurumenari lotutako galdetegia prestatzea	BAI	
		51	46	LMAUkoa ez den langileria (arreta espezializatua) ingurumenari lotutako galdetegia ematea	BAI	
				Galdetegia betetzea	BAI	
				Betetako galdetegiak aztertzea	BAI	
				Ingurumenarekiko jardueran zein IKSren ezagutzan (galdetegiak) lortutako emaitzen (hobekuntzen) zabalpena	BAI	

Helburuaren betetze-maila: Lortzea espero den adierazlearen balioa 45,9koa da. Lortutako adierazlearen balioa, berriz, 16koa. Horrek %9,8ko murrizketa dakar, ezarritako helburutik gertu dagoen balioa hain zuzen, hortaz, balekotzat jo dezakegu. Erregistratutako gertaerek edonoren eskura dauden edukiontzietan hondakinak behar ez bezala bereizteari lotutakoak dira. Interesa daukaten alderdiei informazioa emateko eta kontzientzian eragiteko lanean jarraitu behar dela deritzogu.

Xede/ekintzen betetze-maila: Eskualdea osatzen duten zentro guztietan burutu dira planifikatutako ekintzen %100. 2009ko lehenengo lauhilekoan Ingurumenari lotuta erabiltzaileei zuzendutako galdetegia prestatu zen. Helburua, ingurumenaren kudeaketari lotutako alderdiei buruz, erabiltzaileen iritzia eta jokabidea ezagutzea zen, ingurumen-gertaerak murrizteko asmoz. Osasun zentroetako erabiltzaileei maiatzean banatu zitzairen galdetegia eta ekainean jaso zen. Emaitzak zentroetako ohar-tauletan argitaratu dira.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Helburu hori partez bete izanagatik ingurumen-jarduera hobetu egin da LMAUetako erabiltzaileen sentsibilizazioari esker.

6. INGURUMEN HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK/ EKINTZAK	EGOERA Lortuta BAI/ EZ	
	Definizioa	2008	2009		Xedea	Helburua
Kamiseta poltsen (zentroetan biodegradagarriak diren poltsen portzentajea %15 haztea) kontsumoan ingurumen-irizpideak txertatu. Zentroak: guztiak	Poltsa biodegrada- garrien ehunekoa	0	%100	Plastikozko poltsa biodegradagarrien hornidura	BAI	BAI
				Erabiltzaileentzako kamiseta poltsak, biodegradagarriak diren beste batzuekin ordeztea.	BAI	
				Biltegiak kamiseta poltsekin hornitu ordez, biodegradagarriak eta erabilera anitzekoak diren beste batzuekin hornitzea.	BAI	
				Biltegietak kamiseta poltsak, biodegradagarriak eta erabilera anitzekoak diren beste batzuekin ordeztea.	BAI	

Helburuaren betetze-maila: Lortzea espero den adierazlearen balioa %15koa da. Lortutako adierazlearen balioa %100ekoa da. Poltsak, ingurumenari gutxiago eragiten dioten beste batzuekin, ordeztu dira.

Xede/ekintzen betetze-maila: Eskualdea osatzen duten zentro guztietan burutu dira planifikatutako ekintzen %100.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Helburu horren bitartez, materialez hornitzeko orduan ingurumen-irizpideak txertatu dira, horiek ingurumenean daukaten eragina murrizten lagunduz.

7. INGURUMEN HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK/ EKINTZAK	EGOERA Lortuta BAI/ EZ	
	Definizioa	2008	2009		Xedea	Helburua
Hondakinen bereizketa hobetu ("zabor orokor" gisa bildutako hondakinen kantitatea %1 murriztea) Zentroak: guztiak	Hondakin kg/ erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioko lanpostu- zerrenda	0,0261 hondakin kg/ erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioko lanpostu- zerrenda	0,02537 hondakin kg/ erabiltzaileko hitzordu kopurua+ administrazioko lanpostu- zerrenda	Langileei hondakinen kudeaketari buruzko informazioa emata: triptikoak	BAI	BAI
				RAEEtarako (aparailu elektronikoak) edukiontzia jartzea	BAI	
				Biltegietan plastikoak bereizteko edukiontzia jartzea	BAI	

Helburuaren betetze-maila: Lortzea espero den adierazlearen balioa 0,0258 kg hondakin/ erabiltzaileko hitzordu kopurua. Lortutako adierazlearen balioa 0,02537 kg/erabiltzaileko hitzordu kopurua. Horrek kontsumoaren %2,79ko murrizketa dakar.

Xede/ekintzen betetze-maila: Eskualdea osatzen duten zentro guztietan burutu dira planifikatutako ekintzen %100.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Helburu horren bitartez, murriztu egin da kontsumoa eta lurzoruan eta atmosferan eragina, tratamendu eta pilaketa ekintzei esker.

8. INGURUMEN HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK / EKINTZAK	EGOERA Lortutakoa BAI / EZ	
	Definizioa	2008	2009		Xedea	Helburua
BiE n argi-indarraren kontsumoa %0,3 murriztea Zentroak: Otxarkoaga	Argindarraren kontsumoa kwh-tan/ erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioako lanpostu-zerrenda	0,7998	0,9167	Detektoreak edota tenporizadoreak jartzea komunetan eta aldageletan (aurretiazko azterlana).	EZ	EZ
		kwh/erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioako lanpostu-zerrenda	kwh/erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioako lanpostu-zerrenda	Bonbilla normalak kontsumo txikikoekin ordeztzea	BAI	

Helburuaren betetze-maila: Lortzea espero den adierazlearen balioa 0,7974 kwh/ erabiltzaileko hitzordu kopurua. Lortutako adierazlearen balioa, aldiz, 0,9167 kwh/ erabiltzaileko hitzordu kopurua. Horrek kontsumoaren %15,01eko igoera dakar.

Xede/ekintzen betetze-maila: Bonbilla normalak kontsumo txikikoak direnekin ordeztu dira.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Ez da posible izan.

5. INGURUMEN-JOKABIDEA

5.1. OINARRIZKO ADIERAZLEAK ETA BESTE ADIERAZLE BATZUK

LMAUetan, ingurumenaren aldetik daukaten jokabidearen jarraipena egiteko, **BiE**ren ingurumen-alderdi nagusiekin lotutako zenbait jarraipen-adierazle ezarri dira. Jarraipen-adierazleok erakundearen tamainari eta motari egokitutako informazioa lortzea ahalbidetzen dute, baita bere beharrian eta lehentasunei dagokienean ere. Aldi berean, honako datuak emango dituzte:

- erakundearen ingurumen-jokabidearen balorazio ahalik eta zehatzena eskaintzea;
- ulergarriak eta argiak izatea,
- erakundearen ingurumen-jokabidearen garapena urtez urte ebaluatzeko konparazioa ahalbidetzea;
- araubidezko baldintzekiko konparazio egokia ahalbidetzea.

Ezarritako adierazleek, eraginak eta/edo urteko guztirako kontsumoak, gure zentroetan arreta eman zaien erabiltzaileko hitzordu kopuruarekin lotu dituzte, **BiE**.- Bilbo Eskualdeko ingurumen-jokabidea hobeto islatzen dutela uste baitugu. Masa kontsumoak eta sortutako hondakinak kg-tan adierazi dira, zentroetan islatutako datuekiko konparazioa errazteko; zenbait kasutan, tonetan adieraziak izatea eragozten duten kantitate oso txikiei egiten baitie erreferentzia. Azken horiek, era berean, dagokion adierazlea lortzeko asmoz, hitzordu kopuruarekin lotu dira.

Jarraian, 2008eta 2009 urteei dagozkien, adierazle batzuen (garrantzitsuak izan zein ez izan) datu kuantitatiboak ematen dira.

Eransketan, 4.1. atalean, **BiE** osatzen duten zentro bakoitzeko datuak ematen dira.

* Adierazleetan baliatutako zentroetako erabiltzaileko hitzordu kopurua BiEko Kontabilitate Sailak eman du.

KONTSUMOAK


Oinarrizko adierazlea. Jokabidea ingurumenaren eremuan: Ura

Uraren urteko guztirako kontsumoa (m3)

- Uraren kontsumoa: (EZ DA GARRANTZITSUA)**

	2008	2009	Aldea	%
Ur-kontsumoa (m3)	18.484	15.977	-2.507	-13,56
Erabiltzaileko hitzorduak	3.381.082	3.477.249	96.167	% 2,84
Ur kontsumoa / erabiltzaileko hitzorduak + administrazioko lanpostu-zerrenda	0,00547	0,00459	-0,00087	-15,95

2008an 18.484 m3 kontsumitzetik 2009an 15.977,120 m3 kontsumitzera pasatu gara, horrek %15,95eko murrizketa dakar. Gainera, m3/ erabiltzaileko hitzorduak adierazlea hartzen badugu aintzat, murrizketa %16,08koa izan da. Datuak Ur Partzuergoak emandako fakturetatik lortu dira.




Oinarrizko adierazlea. Jokabidea ingurumenaren eremuan: Energiaren efizientzia

1. Energiaren guztirako kontsumo zuzena (Mwh)

	2008	2009	Aldea	%
Energiaren kontsumoa (MwH)	2.704,30745	3.198,70518	494,39773	18,28
Berogailuetako gas kontsumoa (Mwh)	2.776,30665	2.652,74272	-123,56393	-4,45
Berogailuetako gasolioaren kontsumoa (Mwh)	348,72807	421,84308	73,11501	20,97
Argindarraren guztirako kontsumo zuzena (Mwh)	5.829,34217	6.273,29098	443,94881	7,62
Erabiltzaileko hitzordu kopurua + admin. lanpostu-zerrenda	3.381.082	3.477.249	96.167	% 2,84
Energiaren guztirako kontsumo zuzena (MwH) / erabiltzaileko hitzorduak + admin. lanpostu-zerrenda *1000	1,72411	1,80410	0,07999	4,64

Energiaren guztirako kontsumo zuzena/erabiltzaileko hitzorduak + adm. lanpostu-zerrenda



- Argindarraren kontsumoa (EZ GARRANTZITSUA)**


BiEko zentroetako eta bere eskualdeko zuzendaritzako bulegoetako argindarraren guztirako kontsumoa 2008an 2.704,30745 Mwh izan zen eta 2009an, berriz, 3.198,70518 Mwh-koa. Mwh/ erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioko lanpostu-zerrenda adierazlea kontuan izanik, eskualde mailan %15,01eko igoera eman da. Lanparak, erre ahala, kontsumo txikikoekin ordeztuko dira. Ahal den neurrian, eta aurrekontuak aintzat hartuz,

Begoña, Errekalde eta Otxarkoagako zentroetan detektoreak eta/edo tenporizadoreak jarriko dira, gainontzekoetan, ostera, komunetan sakagailuak jarriko dira arian-arian. Ingurumenarekiko praktika onak sustatuko dira.

Edonola ere, kontsumoak gora egin du, Prebentziorako Oinarrizko Unitateak zentroetan egindako ikuskapenek eraginda, luminariak areagotu baitira.

Elektrizitatearen sorrera: Merkaturatzen duen konpainiak ematen digu ekoizpen nazionalen teknologia-nahastearen banakatzea, konparazioak egin ahal izateko.

Ondoko grafikoan banakatzea ikus daiteke: Ekoizpen-nahastea Espainiako Sistema Elektrikoan



- **Galdaretako gas kontsumoa (EZ GARRANTZITSUA)**

2009an, galdaretako gas kontsumoa %7,09 murriztu da, Mwh/ erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioko lanpostu-zerrenda adierazlea kontuan hartuta. Kontsumoa negu batetik bestera ematen den klimatologia aldearen araberakoa da.

Datuak hornitzaileak emandako fakturretatik atera dira.

- **Galdaretako gasolioaren kontsumoa (GARRANTZITSUA)**

2009an galdaretako gasolio kontsumoa %17,62 hazi da, Mwh/ erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioko lanpostu-zerrenda adierazlea kontuan izanik.

Aurreko kasuan bezalaxe, Kontsumoa negu batetik bestera ematen den klimatologia aldearen araberakoa da.

Datuak hornitzaileak emandako fakturretatik atera dira.

2. Energia berriztagarriaren guztirako kontsumoa:

Bilbo Eskualdeak ez dauka energia berriztagarrien iturririk

Oinarrizko adierazlea. Jokabidea ingurumenaren eremuan: Efizientzia materialen kontsumoan

Erabilitako material desberdinen urteko masa gastua.

	2008	2009	Aldea	%
Material kontsumoa jarduera sanitarioan (Tn)	126,008388	233,337963	107,329575	85,18
Paper kontsumoa (Tn)	29,338375	27,497070	-1,841305	-6,27
Inprimagailu / fotokopiagailu / drumeko tonerraren kontsumoa (Tn)	1,535088	1,573936	0,038848	2,53
Pila eta baterien kontsumoa (Tn)	0,398744	0,430878	0,032134	8,05
Erabilitako material desberdinen urteko masa gastua (Tn)	157,280595	262,839847	105,559252	67,12
Erabiltzaileko hitzorduak + administrazioko lanpostu-zerrenda	3.381.082	3.477.249	96.167	% 2,84
Erabilitako material desberdinen urteko masa gastua / erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioko lanpostu-zerrenda*1000	0,047	0,075588	0,029	62,49

- **Materialen kontsumoa jarduera sanitarioan (EZ GARRANTZITSUA)**

Material sanitarioaren kontsumoaren kasuan, jarduera sanitarioaren ezaugarriak kontuan izanik, erakunde honek alderdi horren gain eragiteko aukera gutxi daukala uste du, beti ere bere zerbitzuen garapen egokia lehenetsiz. Horregatik bada, material horien kontsumoa kontrolatzen jarraitu arren, ez da alderdi garrantzitsu gisa hartu.

Materialon masa-aldea 2008 eta 2009 urteetan, kuantifikazio sistematika aldatu izanari dagokio, 2009tik aurrera Eskualdean gehien kontsumitzen diren artikulak aintzat hartu direlarik.


- **Paper kontsumoa (EZ GARRANTZITSUA)**

Jarduera %2,84 hazi dela hartzen badugu aintzat eta Tn/ erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioko lanpostu-zerrenda adierazleak ondoz ondoko 2 urtetan konparatzen baditugu, murrizketa %8,87koa da. Langileek paperaren ordez erabilera informatikoa lehenetsi dezaten kontzientziatzeko ahalegina egin da. Gainera, Bilbo Eskualdeak %100 klororik gabekoa den papera, eta segurtasun-arau ugari betez fabrikatzen dena, darabil. Era

horretan, ingurumenarentzat kaltegarriak diren igorpenak minimora murrizteko. Paper-mota hori Erakunde Zentralak onartu du, zurtasun eta inprimagailuak trabatu ditzaketen hondakinik ez izateagatik.


Datuak **BiE**ko Hornidura Sailak emandakoak dira.

Paper Tn/ erabiltzaileko hitzordu kopurua adierazlearen grafikoa erakusten da.



- **Inprimagailu/ fotokopagailu/ drumaren toner kontsumoa (EZ GARRANTZITSUA)**

2009an oinarritzko kontsumoa hazi egin da baina jarduera areagotu izanarekin lotzen badugu, adierazle hori %0,30 jaitsi da 2008koarekin alderatuz (toner kontsumoaren adierazlea: Tn/ erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioko lanpostu-zerrenda). Datuak **BiE**ko Hornidura Sailak emandakoak dira.




- **Pilen eta baterien kontsumoa (GARRANTZITSUA)**

Bateria-kargagailuak erabiltzeko bideragarritasun azterketa egin da. Zentro batzuetan, pilak bateria kargagarriekin ordeztzea posible izan da (esaterako Alde Zaharra, Sagarminaga eta Gazteleku), eta bateria kargagailuak eman zaizkie. Ekintza hori ezin izan da egin zentro guztietan profesional batzuen erreparoei eraginda, baita prozedura diagnostikoetan kargatutako pilak baliatzearen fidagarritasunak langileengan eragiten duen ziurgabetasunak ere. Horrela bada, Eskualdearen azken balantzeak pila eta bateria kontsumoan %5,07ko igoera dago. Zentroetako arduradunei ordezkapen horrek dakartzan onurak adierazi zaizkie, (zentroetako arduradunei e-maila), gainontzeko langileei ere jakinarazi zaie ingurumenari buruzko galdetegiaren bitartez. Pila normalak baliatzen diren gainontzeko zentroetan ahalegina egiten jarraituko da.

BiEko Hornidura Sailak emandako datuak

Pilen kontsumoa / erabiltzaileko hitzordu kopurua+admin. Lanpostu-zerrenda



HONDAKINAK


Oinarrizko adierazlea. Jokabidea ingurumenaren eremuan: Hondakinak

- Hondakinen urteko guztirako sortzea

	2008	2009	Aldea	%
Hondakin arriskutsuak (Tn)	17,871515	21,05225	3,180735	17,80
Bereizitako hiri-hondakinak (Tn)	46,94619	54,007415	7,061225	15,04
Bereizi gabeko hiri-hondakinak	88,2404	88,21914	-0,02126	-0,024
Hondakinen urteko guztirako sortzea (Tn)	153,05811	163,27881	10,2207	6,68
Erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioko lanpostu-zerrenda	3.381.082	3.477.249	96.167	% 2,84
Hondakinen urteko guztirako sortzea(erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioko lanpostu-zerrenda * 1000	0,04527	0,04696	0,00169	3,73

Sortutako hondakinen guztirako kantitatea %6,68 hazi da, erabiltzaile-kopurua areagotu egin baita eta, hortaz, jarduera ere bai, guztirako hondakin Tn/ erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioko lanpostu-zerrenda adierazlearen azken balantzeak %3,73ko igoera izan du.

Zabor orokorre dagokienez, egoera normaletan sortutakoak izan dira aintzat eta ez eraikuntzatik eratorritako hondakinak (zentroetan egindako obretan sortutako hondakinak). Egoera anormaletan sortutako hondakin kopurua 92.758 kg-koa izan da eta horrek ez luke konparazio egokirik egingo sortu ohi diren hondakinekiko (hondakin arriskutsuak, bereizitako hondakin ez arriskutsuak eta bereizi gabeko hondakin ez arriskutsuak).




• Hondakin arriskutsuak

Hondakin arriskutsuetatik batzuk erabiltzaileen beharrian sanitarioen arabera sortzen dira, horien artean esaterako ebakitzailak/ zorrotzak eta zitostatikoak daude. Erakundeak horien gain eragiteko aukera gutxi duela uste du, beti ere jarduera sanitarioaren garapen egokia lehenetsiz.

Bestalde, zentroetan Puntu Berdea deritzona ezarri da. Erabiltzaileek erradiografiak, pilak eta iraungitako medikamentuak utz ditzakete bertan. Hondakin horietako baten kantitateak gora egin du. Dena dela, hondakin horiek gehiago kontsumitzeak ez dakar berekin zentroaren ingurumenarekiko jokabide okerragoa, alderantziz, erakunde honen zuzendaritzak uste du erabiltzaileek hondakin horiek gehiago biltzeak beroien kudeaketa egokia dakarrela. Hondakinok baimendutako kudeatzailearen bitartez kudeatzen dira.

Sortutako hondakin arriskutsuen grafikoa erakusten da (euretako zenbaiten kasuan sortutako kantitatea hain txikia izan da ezen kg-tan adierazi da).



Hondakinen agente kudeatzaileek emandako datuak.

• Ebakitzailak eta zorrotzak, zitostatikoak eta baztertutako medikamentuak (EZ GARRANTZITSUA)

	2008	2009	Aldea	%
Ebakitzailleak eta zorrotzak	10.767	11.976	1.209	11,23
Zitostatikoak	1.753	1.692	-61	-3,48
Baztertutako medikamentuak	3.400	4.951	1.551	45,62
Erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioko lanpostu-zerrenda	3.381.082	3.477.249	96.167	% 2,84

- **RAEEak (inprimagailuak, ordenagailuak...) (GARRANTZITSUA)**

	2008	2009	Aldea	%
RAEEak (Kg)	23,000	510,05	487,050	2117,6
Erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioko lanpostu-zerrenda	3.381.082	3.477.249	96.167	% 2,84
RAEEak / erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioko lanpostu-zerrenda *1000	0,007	0,147	0,140	2056,28

2009an sortutako RAEEen 23 kg eskas kuantifikatu ziren, hori dela eta, 2009an hondakin horien jarraipena egitea lehenetsi zen. 510,05 kg bildu dira, baimendutako kudeatzailearen bitartez kudeatu direlarik. RAEE kg/ erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioko lanpostu-zerrenda adierazlea kontuan hartzen badugu, bilketaren igoera %2056,28koa izan da.

- **Lanpara fluoreszenteak (GARRANTZITSUA)**

	2008	2009	Aldea	%
Lanparen hondakinak (kg)	141,39	352,62	211,23	149,39
Erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioko lanpostu-zerrenda	3.381.082	3.477.249	96.167	% 2,84
Lanparen hondakinak /erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioko lanpostu-zerrenda *1000	0,04	0,10	0,06	141,45

Zentroetan baztertutako fluoreszenteen kopurua zerbitzu teknikoek egindako azterketen arabera da, hortaz, beti ezin da zuzeneko kontrola egin. Izan ere, erretiratutako lanparak hornitzaileak berak eramaten ditu. Zerbitzu hornitzaileak berak emandako datuak.

- **Garbiketako ontzi arriskutsuak (GARRANTZITSUA)**

	2008	2009	Aldea	%
Garbiketako ontzi arriskutsuak (Kg)	27,425	17,98	-9,445	-34,44
Erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioko lanpostu-zerrenda	3.381.082	3.477.249	96.167	% 2,84
Garbiketako ontzi arriskutsuak / erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioko lanpostu-zerrenda *1000	0,008	0,005	-0,003	-36,25

Kontrata batek sortutako alderdia denez gero, horrekiko kontrola mugatua da. Dena dela, zeregin horretarako kontratatutako enpresak Ingurumena Kudeatzeko Sistema dauka ziurtatuta, beraz, ingurumenaren kudeaketaren etengabeko hobekuntza prozesuan dago sartuta.

Enpresak berak emandako datuen arabera, 2009ko kuantifikazioa 17,98 Kg-koa izan da.

- **Hondakin ez arriskutsuak**


	2008	2009	Aldea	%
Hondakin ez arriskutsuak (Kg)	135,18659	142,226555	7,039965	5,21
Erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioko lanpostu-zerrenda	3.381.082	3.477.249	96.167	% 2,84
Hondakin ez arriskutsuak / erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioko lanpostu-zerrenda	0,03998	0,04090	0,00092	2,30

Eskualdeko zentroetan sortutako hondakin ez arriskutsuek honakoak biltzen dituzte: bai bereizitako hiri hondakinak: tinta eta toner kartutxoak, papera, kartoia, erradiografiak, plastikozko eta metalezko ontziak, hondakin higienikoak; bai bereizi gabeko hiri hondakinak edo zabor orokorra deritzona.

Sortutako hondakin ez arriskutsuen kantitatea, 2008an 135,18659 Tn-koa izatetik 2009an 142,226555 Tn-koa izatera pasatu da, horrek %2,30ko gorakada dakar kontuan izanda adierazlea: bereizi gabeko hiri-hondakin Tn + bereizitako hiri-hondakin Tn/ erabiltzaileko hitzordu kopurua+ administrazioako lanpostu-zerrenda.

Aparatu erradiologikoak digitalekin ordeztu dira, hori dela eta horrek erradiografia hondakinak hondakin ez arriskutsu modura sailkatzea ekarri du (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko Hondakin Arriskutsuen Zerbitzuari egindako kontsulta), aurretiaz hondakin arriskutsu modura kuantifikatzen zirelarik.

Hondakin ez arriskutsuen datuak garbiketarako kontratatutako enpresaren lankidetzarekin bildu dira. Ondoko grafikoan datuak Kg-tan adierazita datoz.



IGORPENAK

Oinarritzko adierazlea.


Jokabidea ingurumenaren eremuan: Igorpenak

1. Berotegi-efektuko gasen urteko guztirako igorpenak

	2008	2009	Aldea	%
Argindarraren igorpenak (CO2 Tn)	1.095.229,518	1.462.409,234	367.179,716	33,53
Galdaretako gasen igorpenak (CO2 Tn)	525.046,914	533.599,198	8.552,284	1,63
Galdaretako gasolioaren igorpenak (CO2 Tn)	937.032,324	1.133.492,356	196.460,032	20,97
Berotegi-efektuko gasen urteko guztirako igorpenak	2.573.402,160	3.149.850,286	576.448,125	22,40
Erabiltzaileko hitzordu kopurua + administrazioako lanpostu-zerrenda	3.381.082	3.477.249	96.167	% 2,84
Berotegi-efektuko gasen urteko guztirako igorpenak / erabiltzaileko hitzordu kopurua *1000	0,76112	0,90585	0,14473	19,02

BiEko jardueretan atmosferara egindako ustezko igorpenak, galdaren eremuan, gas/gasolioa erretzean igortzen diren konbustio-gasetatik eratorritako igorpenek eragindakoak izan daitezke. IHOBek (Iturria:IPCC) emandako bihurketa-faktorea.

2008arekin alderatuz, 2009an gure zentroetan arreta jaso duten erabiltzaileen kopururik handiena kontuan hartzen badugu, CO2 igorpenen %19,02ko igoera eman da.



2. Urteko guztirako aire igorpenak:

Bilbo Eskualdeak ez dauka daturik kalkulua egiteko.

BIODIBERTSITATEA

Oinarrizko adierazlea. Jokabidea ingurumenaren eremuan: Biodibertsitatea
Lurzorua okupazioa:

Bilbo Eskualdeko lurzorua okupazioa ez da aldatu.

Lurzorua okupazioa (m2)	28.177
Lanpostu-zerrenda	854
Lurzorua okupazioa / Lanpostu-zerrenda	32,99

Bestelako adierazleak:

ZARATA

- **Eragindako zarata (EZ GARRANTZITSUA)**

BiEk burutzen dituen jarduerak ez dira zarata eragile gisa jotzen, edozelan ere, kanpoko zarataren neurketak egin dira eta bertan azaldutako gehieneko baloreak udal-araudiak aplikatzen dituen azpitik daude.

5.2. ARAU-XEDAPENEN ARABERAKO INGURUMEN-JOKABIDEAK

5.2.1. INGURUMENAREN EREMUAN APLIKAGARRI DIREN LEGEZKO BALDINTZAK

Erakundeak ingurumeneko baimenak dauzka, erakunde eskudunak aplikatu edo salbuetsi beharrekoak, eta beroiek betetzen direnents aldizka identifikatzeko eta ebaluatzeko erregistroa ere ezarri du.

Horrez gain, erakundeak legeria eguneratzeko zerbitzua azpikontratatu du, zerbitzu horren bitartez gure sektoreari lotutako legeriari buruzko (xedapen berriak, aldaketak, etab) jakinarazpenak jasotzen ditugu. Horrek, legezko ardurei dagokienean, gure enpresaren ingurumenarekiko jokabide egokiaren jarraipena egitea ahalbidetzen digu.

Legezko xedapenik garrantzitsuenak

OROKORRA

1. 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra
2. 26/2007 Legea, urriaren 23koa, Ingurumen ardurari buruzkoa

ATMOSFERA

1. 3. 833/1975 Dekretua, otsailaren 6koa, abenduaren 22ko atmosferako ingurugiroa babesteko 38/1972 Legea garatzekoa
2. 4.-34/2007 Legea, azaroaren 15ekoa, airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzkoa

HONDAKINAK

1. 3. 10/1998 Legea, apirilaren 21ekoa, hondakinena
2. 2.-833/1988 Errege Dekretua, uztailaren 20koa, hondakin toxikoei eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1996 Legea burutzeko Erregelamendua onartzen duena.
3. 3.- 952/1997 Errege Dekretua, ekainaren 20koa, maiatzaren 14ko 20/1986 Legea betearazteko Araudia aldarazten duena. Hondakin Toxiko eta Arriskutsuen Oinarrizko Araudia, uztailaren 20koa, 833/1988 Errege Dekretuaren bidez onetsia.
4. 76/2002 Dekretua, martxoaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzeko dena. (EHAA 75 zk. 2002ko apirilaren 22koa)
5. 5.-MAM/304/2002 Agindua, otsailaren 8koa, Hondakinen europar zerrenda eta hondakinak baloratu eta suntsitzeko operazioak argitara ematen dituen. (2002ko otsailaren 19ko BOE, 43. zk.)
6. 208/2005 Errege Dekretua, aparatu elektriko eta elektronikoen eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoa. (2005eko otsailaren 26ko BOE, 49. zk.)
7. PRE/222/2009/ Agindua, otsailaren 6koa, 1406/1989 Errege Dekretuaren, substantzia eta gai arriskutsu zenbait (merkurioa daukaten neurgailuak) merkaturatzeko eta erabiltzeko mugak ezartzen dituenaren, I. eranskina aldarazten duena.
8. 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.

9. 11/97 Legea, ontziei eta ontzien hondakinei buruzkoa.

URA

1. 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.
2. Hondakin-urak Behe Nerbioiko saneamendu sistema orokorrean isurtzeko eta ur horiek arazteko araupetzeko araudia (Bilbo Handiko Eskualdea) (BAO 63. zk., 1989/03/16koa).

LURZORUAK

1. 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak zerrendatu eta lurzoru kutsatuak izendatzeko irizpideak eta estandarrak ezartzen dituen.
2. 1/2005 Legea, otsailaren 4koa, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko.

LEGIONELA

1. 865/2003 Errege Dekretua, uztailaren 4koa, legionelosiari aurea hartu eta hura kontrolatzeko higie eta osasun alorreko irizpideak ezartzen dituen.

5.2.2. LEGEZKO BALDINTZAK ETA INGURUMEN IZAERAKO BESTE BALDINTZA BATZUK BETETZEA

BiE- Bilbo Eskualdeak aplikagarri zaion araudia betetzen du. Galdatutako ingurumeneko baimenak dauzka, besteak beste:

➤ Jarduera lizentzia

2008ko maiatzaren 20an, Bilboko Udalak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari jakinarazi zion, Bilbo Eskualdeko zentroetan garatzen den jarduera, egoera sanitarioan titulartasun publikoko ekipamenduaren erabileraz diharduela eta, hortaz, ez daukatela irekitze-lizentziaren derrigortasunik honako araudian jasotzen denez: Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorraren 5.2.22 artikuluan, Hirigintza Lizentziei eta beroien izapidetzeari buruzko Ordenantzaren 105. artikuluan eta 2/2006 Legearen, Euskadiko lurzoruari eta hirigintzari buruzkoaren, 207. artikuluan.

2008ko uztailaren 3an, Alonsotegiko Udalak Alonsotegiko osasun zentrorako jarduera-lizentziaren onarpena eman zuen.

➤ Hondakin sanitarioak

76/2002 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzeko dena betez, 2008ko urriaren 28an Osasun Publikoko zuzendariaren Ebazpenaren kopia jaso zen, Bilbo Eskualdeko Osasun Zentroetako Hondakin Sanitarioak Kudeatzeko Plana onartzen duena.

➤ **Hondakin arriskutsuak**

2008ko urriaren 9an Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuordearen Ebazpena ematen da non Bilbo Eskualdeko zentro guztiak Euskadiko Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuen Ekoizle Txikien Erregistroan inskribatuta gelditzen diren.

➤ **Hondakin ez arriskutsuak**

2008ko ekainaren 30ean Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak, Industria Hondakin geldoen Erregistroan Bilbo Eskualdea osatzen duten zentroak bertan inskribatzea baimentzen du.

➤ **Isurketak**

2008ko irailaren 25ean Uren Partzuergoak erabakitzen du kolektorera isurpen-baimena ematea baita B motako erabiltzaile gisa sailkatzea ere.

BiE- Bilbo Eskualdea erakundeak ingurumenaren eremuan aplikagarri diren arauzko betebeharrak bete dituela aitortzen du eta ez duela zigorrik jaso ingurumenari buruzko lege-urraketenatik.

6. INGURUMENARI LOTUTAKO BESTELAKO INFORMAZIO INTERESGARRIA

6.1.1. INGURUMENAREKIKO JOKABIDEA ERAKUNDEAREN BESTE EREMU BATZUETAN

BiEk konpromiso irmoa dauka gizarte eta ingurumeneko garapen iraunkorreko proiektuez jabearaztearekin eta horiek abiaraztearekin, eta erakundearen beste eremu batzuetan lan egiten du, pertsonalarekin zein herritarrekin oro har. Horietako zenbait jarraian deskribatuko dira:

- Ingurumenaren kudeaketari buruzko jardunaldiak, beharrianen arabera: Erregistroak hobetzea ahalbidetuko duten tresna informatikoetan prestakuntza, ingurumen-kudeatzaile berriei prestakuntza, barne ingurumen-auditoreei prestakuntza. Gainera, POUarekin (Prebentzioarako Oinarrizko Unitatearekin) batera, lan arriskuen prebentzioa eta hondakin sanitarioen kudeaketa egokia barne hartzen duen prestakuntza egin da. Era berean, larrialdietarako eta simulazioetarako prestakuntza, batzutan POUaren beraren eskutik eta beste batzutan kontratatutako enpresaren bitartez.
- Bilbo Eskualdeko V. Prestakuntza Jardunaldiak: 2009ko ekainean: "Gidatze ekologikoko tailerra" egin zen
- Profesionalei informazioarako buletin elektronikoak.
- Gure zentroetan lan egiten duten, bertakoak nahiz beste erakunde batekoak izan, langile guztiei banatutako triptikoak egin dira, hondakinen kudeaketari buruzko informazio orokorra biltzen dutenak.
- Intraneteko ingurumenaren atalean aldaketak egin dira. Komunikabide horrek langileei erakundearen ingurumen-baldintzak zein diren jakinaraztea errazten du, aldi berean, **BiE**ko langileari, baita Osakidetzako gainontzeko erakundeetako ere, iradokizunak egiteko bidea ematen dio.



- Sendaketetan eta odol-ateratzeetan hondakinen behar bezalako kudeaketa jorratzeko erizaintzako profesionalen artetik hobekuntza-taldea eratu da.
- "Ezagutzaren Kudeaketarako Plataformaren" (EZAGUTZA) garapena, sarean gaitu da. Bertan ingurumenari buruzko atala sartu da, ingurumenari lotutako ezagupenen elkartrukerako. Langileen parte hartze aktiboa indar sustatzailea da eta ingurumenaren etengabeko hobekuntza arrakastatsuetarako aurrebaldintza. Era berean, ingurumenarekiko jokabidea hobetzeko funtsezko baldintza da, eta kudeaketa sistema erakundean arrakastaz ezartzeko metodo zuzena.
- 2009ko lehenengo lauhilekoan Ingurumenari lotutako galdetegia prestatu zen. Helburua, ingurumenaren kudeaketari lotutako alderdiei buruz, profesionalen iritzia eta jokabidea ezagutzea zen, ingurumen-gertaerak murrizteko asmoz. Osasun zentroetako langileei maiatzean banatu zitzairen galdetegia eta ekainean jaso zen. Galdetegietako datuen azterketaren emaitza langileei jakinarazi zitzairen, zentroetako ohar-tauletan eta Eskualdeko intranetean jarri.
- Zentro guztietako sarreretan, identifikazio-kartelekin seinaleztatuak, **Puntu Berdeak** daude. Erradiografiak, pilak eta medikamentuak biltzeko eta bereizteko edukiontzi bereziak dituzte. Zentro bakoitzeko hallean daude kokatuta, eta **Ingurumen-Kudeaketarako trakzio-ibilgailu aktibo** gisa jarduten dute gure profesionalentzat eta herritarrentzat oro har. **Puntu Berde** horiek papera, tonerra eta bestelako hondakinak bereizten diren tokien osagarri dira. Era horretan, hondakinak gehitzea eta ondoren tratatzea edo birziklatzea (hala badagokie) sustatzen da.



Zera nabarmendu behar da: 2009an puntu horien trakzio-ondorioetako bat beste materia batzuetako hondakinen bilketaren gorakada izan dela. Zentzu horretan, zentroetako sarreretan azken bi urteotan emandako aldaketak adierazgarriak izan dira. Lehen osasun zerbitzuetarako sarbide hutsak ziren. Helburua ahalik eta garbien eta aseptikoen mantentzea zen. Egun, bai gure zentroetara datozen herritarrentzat baita bertan jarduten duten profesionalentzat ere, **ingurumena berroneratzeko gune** bilakatu direna esan dezakegu.

- 2006, 2007 eta 2008ko **BiEko** Erantzukizun Sozial Korporatiboko memoriek, kanpoko erakundeak eginak eta egiaztatuak, A+ sailkapena lortu dute.


PUNTU BERDEAK.-



6.2. HERRITARRARI KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA

BiEn ingurumenari buruzko informazioa herritarren jokabidea hobetzeko funtsezkoa dela deritzogu. Hori dela eta, bezeroen arretarako eremuetan, hainbat komunikabide dauzkagu erabiltzaileen esku:

- Ingurumenari buruzko adierazpena eta hondakinen kudeaketarekin zerikusia daukaten informazio orokorreko triptikoak eta beste kartel batzuk (**Puntu Berdeak**).
- Begirada Batez-erabiltzaileak buletineko informazioa (Informazio orokorreko buletina)
- Eskualdeko zentro guztietan iradokizunetarako postontzia. Erakundeak, interesa erakusten dutenei, egokiak diren komunikazioak jaso, dokumentatu eta erantzuteko prozedura ezarri du.
- 2009ko lehenengo lauhilekoan Ingurumenari lotutako galdetegia prestatu zen. Helburua, ingurumenaren kudeaketari lotutako alderdiei buruz profesionalen iritzia eta jokabidea ezagutzea zen, ingurumen-gertaerak murrizteko asmoz. Osasun zentroetako erabiltzaileei maiatzean banatu zitzairen galdetegia eta ekainean jaso zen. Emaitzak zentroetako ohar-tauletan argitaratu dira.
- Osakidetzako OSANETen, Bilbo Eskualdearen ingurumenarekiko jokabideari buruzko informazio orokorra (ingurumenari buruzko adierazpena) herritarren esku jarri da.
- Erakundeak, bere jarduerak ingurumenean daukaten eraginari buruz, herritarrekin eta interesa daukaten alderdiekin elkarrizketa irekia dauka. Helburua, herritarrentzat kezka-iturri diren alderdiak ezagutzea da auzo-elkarteekin egiten diren bileren bitartez.
- IHOBEko BIAN – Ingurumen Adierazleen Datu-bankuan- parte hartzea, berorrek zentro bakoitzeko adierazleen azterketa zehatza egiten du eta horietan lortutako emaitzak erkatu.
- Bilboko Udaleko Aldaketa Klimatikoaren aurkako BIO bulegoarekin lankidetzatza.



Herritarren aldetik ez da ingurumenari lotutako kexarik jaso, bai ordea iradokizunak egindako ingurumenari buruzko galdetegiaren bitartez.

6.3. HORNITZAILEEK INGURUMENAREKIKO DAUKATEN JOKABIDEA

Erakunde Zentraleko Kontratazio Zuzendariordetzan, erakundeko kontratazio-pleguetan ingurumenari buruzko baldintzak jaso daitezen izapideak egin dira.

Bere aldetik **BiEk** galdetegi bat baliatuz, hornitzaileak eta azpikontratak ebaluatzen ditu ingurumenarekiko daukaten jokabideari lotuta.

Eskaintzak baloratzerakoan, ingurumenaren gaineko honako alderdiak hartzen dira kontuan:

- Hondakinak kudeatzea
- IHOBEn erosketa eta kontratazio publikoaren eskuliburua
- Material biodegradagarriak erabiltzea
- Energia eraginkortasunez erabiltzea
- Ingurumenaren kudeaketa Sistemak ezartzea

2009an garbiketa zerbitzuen hornitzaileen, ingurumenaren arduradunen eta POUren artean koordinazio-bilerak egiten hasi dira.

6.4. INGURUMEN-KUDEAKETARAKO INBERTSIOAK

Ingurumen izaerako inbertsioak honakoak izan dira:

URTEA	EKINTZA	ZENTROA	ERAGINA	INBERTSIOA
2009	Ingurumenaren kudeatzaileen prestakuntza	Zentro guztiak	Erakundearen ingurumen kulturaren hazkundera	*5.000€ baino gehiago
2009	Barne ingurumen-auditoreei prestakuntza	Zentro guztiak	Sistemako desbideratzeak antzematea	*5.000€ baino gehiago
2009	Larrialdietan eta simulazioetan prestakuntza	Zentro guztiak	Kutsaduraren eta hondakinak sortzearen murrizketa	*5.000€ baino gehiago
2009	Berogailu-sistemari ixteko eta erregulatze giltzak instalatzea	Deustua OZ	Energia kontsumoaren eta atmosferara igorpenen murrizketa	3.415,04 €

Prestakuntza erakundearen baliabideekin eta profesionalak ordezkatu gabe egitean, begiz jotako kostuen atxikipena ateratzen da.

6.5. INGURUMENARI LOTUTAKO GERTAERAK

2009an, uholdeek eta kokapen ezaugarrien eraginez, Alonsotegi osasun zentroko garajea urez bete zen. Egoera kontrolatu ostean, garajea garbitu eta hondakinak kendu egin ziren. Alonsotegiko osasun zentro berria amaituta dago ia, lekualdatzeko izapide administratiboen pentzutan.

2009ko urrian, arratsaldeko txandan, Alde Zaharra osasun zentroko berogailuaren gas erreguladoreak ihesa eduki zuen. Zentroko langileek ohartarazi zuten eta behingoan konpondu zuten.

Bi gertaeretatik aparte, ez da gertaera aipagarririk eman.

6.6. 2010erako ERRONKAK

BiEn uste dugu **berrikuntza etorkizuneko erronka** dela eta, egungo gizartearentzat eta datozen belaunaldientzat **iraunkortasunaren eta ingurumenarekiko errespetuaren** gaineko irizpide argiak kontuan izanda, egin behar dela. Ildo horretan, hobekuntzarako proiektuak planteatzen jarraitzen dugu. Jakin badakigu ere proiektu guztiak ezin egin daitezkeena urte bakar batean, zentro ugari dagoelako eta horietako bakoitzeko balizko jabearazte- eta ezartze-mailen kopurua handia delako; hala ere, 2010erako erronka-multzoa eskaintzen da.

- o Hondakin biosanitarioak %2 murriztu

- o Erabiltzaileekin zerikusia daukaten gertaera-kopurua %5 murriztu
- o Pilen kontsumoa %1 murriztu
- o Argindarraren kontsumoa %0,2 murriztu
- o Hondakinak bereiztea hobetu ("zabor orokorra" modura bildutako hondakinak %1 murriztu)

Euretako bakoitzaren dimentsioa edo zabalkundea Ingurumenari buruzko Adierazpenaren eranskinetan aurki daiteke.

BiE- Bilbo Eskualdeak bere jarduera areagotu egin du Larreagaburu auzoan zabaldu berri duen osasun zentroarekin. Horrela, inguru horretako biztanleek (12.000 inguru) ez dute aldameneko auzoetako zentroetara joan beharrik. Zentro horretako langileak Eskualdeko beste zentro batzuetatik etorri dira nagusiki (Santutxu, Bolueta eta Karmelo) eta zentrook ingurumenarekiko jokabidearen hobekuntzarekin sentsibilizatuta daude. Hori dela eta, zentro berrian, Eskualdeko Ingurumenaren Kudeaketa Sistemaren arabera hobekuntza-ekintzak ezartzen ari dira.

7. EGIAZTATZEA ETA BALIOZTATZEA

Adierazpen honen ingurumen-egiaztatzailea Normalizazio eta Egiatzeneko Espainiako Erakundea (AENOR) izan da, Egiatzeneko Nazio Erakundeak egiaztatuta (ENAC) ES-V-0001 zenbakiarekin.

Ingurumenari buruzko Adierazpena herritarren eskura jarriko da formatu inprimatuan Osakidetza **BiE** Eskualdeko osasun zentroetan, eta doan emango da, aurretiaz eskatuz gero.

2011. urterako ezarri da ingurumenari buruzko hurrengo adierazpena egiteko epea.

BALIDATUTAKO INGURUMEN ADIERAZPENA

(CE)ko 1221/2009 ARAUDIAREN ARABERA

**INGURUMEN-EGIAZTATZAILE GISA, EGIAZTAPEN-ZK.
ES-V-0001**

Data:

Sinadura eta zigilua:

**Ramón NAZ PAJARES
AENOREko zuzendari orokorra**